

SALGAI**EUSKAL KONTSUMO GIZARTEA AZTERTZEN**

Kontsumoaren arloan hasi besterik egin ez den iraultzaren aurrean gaude Euskal Herrian; gure erosteko ohiturak, moduak eta uneak sakonetik aldatzera eta *homo ekoizle* izatetik *homo kontsumitzaile* izatera eraman gaituen geldiezineko eraldaketaren aurrean.

Neurrigabeko kontsumoa, gizartearen *mcdonaldizazioa*, publizitatearen gehiegizko presioa —eta, aldi berean, lilura— eta elikagaien inguruko iruzurrak kontsumoaren arloan jazotzen ari diren birmoldaketa bizkorren adierazle edota ondorio batzuk besterik ez dira.

Liburu honetan, aldaketa horien guztien berezitasunak aztertzen ditut; baita kontsumoaren ikuspuntutik bizi dugun egoera nahasiaren arazoak eta ondorioak ere. Nire irudiko, ikuspuntu sozio-ekonomikotik Euskal Herria nora doan jakiteko, ezinbestekoa da sortu dugun kontsumo gizartearen eta bere ondorioen izaerari buruzko azterketak eta gogoetak bultzatzea.

Lau atal nagusitan banaturik dago liburua.

Kontsumoaren arloan XX. mendean Euskal Herrian gertatu den bilakaera aztertzen dut hasieran. Besteak beste, zera ondorioztatzen dut lehen atal honetan: XX. mendean zehar iraga-



neko kontsumitzaile, ekoizle eta saltzaile independenteak ia desagertu egin dira; alegia, euskal baserrietako buruaskitasunetik merkatuarekiko eta multinazionalekiko erabateko mendetasunera pasatu gara.

Ekoizpen, landaketa eta salmenta prozesu ia guztiak enpresa handien eskuetan daude, marketing kanpaina indartsuak egiteko gaitasuna duten enpresen menpe, eta urteko aro bakoitzean zer jantzi, jan edo erosi behar dugun goitik behera zehazten digute. Are gehiago, gauza guztiak ikuspegi ekonomikotik baloratzen ditugu, eta kontsumitzen dituen produktuen kopuru eta kalitatearen arabera neurtzen hasi gara gizakia. Horrek, neurri barik erostera bultzatzeaz gain, gure etxeak amaigabeko produktuz, tresnaz eta gailuz bete digu: lagungarri direnak batzuk, ezertarako balio ez dutenak ez gutxi.

Bigarren atalean, bizi garen gizartearen gehiegizko kontsumoa ulertzeko zenbait arrazoi ematen ditut. Nola sortu da gizarte kontsumista hau? Zerk edo nork bultzatu du gure gizartearen neurrigabeko kontsumoa? Nola sortu da gure gizartean nagusitzen ari den joera zoro hau, gauzak etengabe erosteko eta botatzeko?

Galdera hauei erantzuna aurkitu nahirik, gure kontsumo portaerak bideratzeko marketing adituak erabiltzen dituzten trikimailuak aztertzen ditut. Besteak beste, publizitatea, markak, merkealdiak, produktuen itxurak, denden antolaketa eta salneurriak zer-nola prestatzen diren aztertzen dut; baita gure balioek izan duten aldaketa ere. Hau da, gehiegizko kontsumoan eragiten duten aldagai eta eragile ekonomiko, politiko, psikologiko eta soziologiko garrantzitsuenak hartu ditut kontuan. Izan ere, kontsumoa korapilotsuegia da bide bakarretik ulertzeko. Erosketa ekintza gauza erraza badirudi ere, kontsumitzailea bera ere kontzientea ez den faktore konplexuen gurutzaketen eta elkarrekintzen ondorio da. Liburu honetan, faktore hauek denak aztertzen saiatu naiz.

Kontsumo gizarteak lehiakortasuna eta aukera gehiagoko merkatuak ekarri dizkigu, baina erosketak egiteko modu erosagoak eta bizitza errazten dituzten produktu sofistikatuagoak ere.

Nolanahi ere, desoreka, disfuntzio eta egonezin larregi ikusten ditugu inguruan guztiz pozik eta harro egoteko. Hirugarren atalean, beraz, gehiegizko kontsumoak sortzen dituen arrisku eta disfuntzioak aztertzen ditut.

Atal honetako ondorio garrantzitsua bat da modernitateak, kontsumitzaile askeak desagerrarazteaz gain, *gizarte arriskutsua* sortu duela, eta bizi garen planetaren eta datozen belaunaldien etorkizuna zalantzan jarri. Kontsumoaren logika gupidagabeak kinka larrian jartzen ditu Berlingo Harresia bota ostean sortu zen munduaren ordena eta, oro har, sistema kapitalista bera ere.

Laugarren atalean, gehiegizko kontsumoari aurre egiteko eta gure planetaren etorkizuna ziurtatzeko hartu beharreko zenbait erabakiren inguruko gogoeta aurkezten dut.

Nolabaiteko proposamenak egitera ausartuta, nire ustez, gizarte kontsumista hau aldatzeko zalantzan jarri behar dena da XIX. mendean hasita indaritzen joan den kultura politiko, instituzional, zientifiko eta ekonomiko osoa. Beste hitz batzuekin esanda, benetan kritikatu beharrekoak tesi neoliberalak dira; ekimen pribatuari eta lehia askeari ateak irekitzearen aitzakiapean, monopolio eta oligopolioak indartzearen, segurtasuna askatasunaren gainetik jartzearen eta estatuaren esku hartzea guztiz mugatzearen aldeko tesiak.

Horrekin batera, estrategia eraginkorra izan daiteke, nire ustez, *produktu eta zerbitzu onargarrien* ekoizpena sustatzea; hau da, arriskurik sortzen ez duten produktu eta zerbitzuena. Ulrich Beck-ek (1998) bezala, nik ere zera pentsatzen dut: etorkizunean ere biziko bagara, ezinbestekoak direla gizakion bizi kalitatea eta gizateriaren etorkizuna arriskuan jartzen ez dituzten produktu eta zerbitzuak.

Balitzko produktu onargarri perfektuak honako berezitasun hauek izango lituzke: ez da transgenikoa, bere ekoizpen, eraldaketa eta paketatze prozesuek ez dute kutsadurarik sortzen, umeen edo langileen esplotaziorik gabe egina dago, pestizida, sulfato edo osasunarentzako kaltegarriak izan daitezkeen antzerako produkturik ez dauka, sortzen den herrialdean finkatzen da bere prezioa, aise birziklatzen da eta produktuaren osagaiei eta erabilpen egokiari buruzko informazio gardena ematen du.

Saiakeraren bukaeran azken hitz batzuk aurkituko ditu irakurleak; egindako gogoeta garrantzitsuenen bilduma, laburpen edo *compendiuma* da azken idatzi hori. Besteak beste, ondorio nagusi hau agertzen da azken zati horretan: Kontsumitzaileen eta produktuaren arteko harreman zuzenak galtzen joan diren hein berean, orain arteko oreka sozial eta ekonomikoa hankaz gora jarri da, eta, ondorioz, nora ezeko egoera gailendu da. Kontsumo gizarteak ekarri dizkigun arazoetariko batzuk dira: herrialde pobretuen esplotazioa, naturaren narriadura, kalitate txarreko elikagaien ugaritzea, naturaren mekanismo eta lege guztien bortxa, osasun arazoak, gaixotasun psikologikoak, multinazionalen gehiegizko boterea eta kontsumitzaileen homogeneotasuna.

Badirudi, gainera, arazo hauek denak areagotu egingo direla globalizazioarekin. Teknologia berrien bidez, denboraren eta distantzien zentzua aldatu egin da, eta munduko leku ez-kutuenean gertatzen denak momentuan du eragina guztion bizitzan. Hots, gizarte aberatsen neurrigabeko kontsumoak sortzen dituen disfuntzioek herrialde guztietan dute eragina. Horregatik, garrantzitsua da Mendebaldeko gizarte aberatsen kontsumo maila eta moduei buruzko gogoeta bultzatzea. Kontsumoa bide bakarretik ulertzeko eta konponbideak aurkezteko konplexuegia dela onartuta ere, beharrezkoa da *erabili eta bota* leloan oinarriturik dagoen gizarte filosofiari buruzko eztabaida publikoa bultzatzea; hau da, nahi dugun

kontsumoari eta garapen ereduari buruzko eztabaida egin behar da, gizarte arriskutsuarekin bukatu eta gure ondorengoak ere bizi daitezen.

Patxi Juaristi